

ERDELLA MENDI TALDEAK ANTOLATUTA, EUSKAL MENDIZALETASUNAREN XXIII. GALAK KOLORE BIZIA IZAN DU ARRIOLA ANTZOKIAN



Saritu guztiak

Euskal Mendizale Federazioaren Gala Elorri (Bizkaia), otsailak 15. Erakusleho paregabea izan zuen urteroko Galak; askorentzat oinarritzko kanpaleku, beste askorentzat horma zorrotz edo mendi zeharkaldia egiteko leku paregabea bihurtu bait zen Arriola antzokia. Aurtengoan, bi mendizale handik izan zuten gala aurkezteko aukera; Zigor Iturrieta eta Ainhoa Lendinez mendi korrikalariak. Zitzu batean pasatu zitzaizkien Arriola antzokia bete zuten 300 bat lagunei saioko bi orduak. Dantza, musika, antzerkia, dokumentala, bertsolaria, aurkezleen gertutasuna, dena izan zen gozagarri. Eta sariak. Pyrenaica aldizkariarenak eta Euskal Mendi Federazioarenak, izan ziren ekitaldiko protagonista nagusiak. Amurrioko Trail mendi taldeak hartu du lekukoa 2020koa antolatzeko.

2018KO EMF-FVMAREN SARIAK

2018KO RANKING SARIAK - PREMIOS RANKING 2018

Emakumezkoen kadete maila/Categoría Cadete Femenina: **ANE ITURRIA ALZATE**

Gizonezkoen kadete maila/Categoría Cadete Masculino: **JULEN GOENAGA LIZARRALDE**

Emakumezkoen junior maila/Categoría Junior Femenina: **NAGORE URIBARRI MARTINEZ**

Gizonezkoen junior maila/Categoría Junior Masculino: **AITOR AJURIA ELKOROBARRUTIA**

Emakumezkoen maila absolutua/Categoría Absoluta Femenina: **MAITE ETXEZARRETA GURRUTXAGA**

Gizonezkoen maila absolutua/Categoría Absoluta Masculino: **BEÑAT KATARAIN RAZKIN**
Taldea/Club: **ZORTZIETAKO K.E.**



Mendi lasterketako rankingeko irabasleak

PREMIO "SHEBE PEÑA" DE MARCHAS LARGO RECORRIDO / IRAUPEN LUZEKO IBILALDIEN "SHEBE PEÑA" SARIA

KONTXI BIKONDOA BIKONDOA

PREMIO DE CARRERAS POR MONTAÑA / MENDIKO LASTERKETAREN SARIA

OIHANA AZKORBEBEITIA URIZAR

PREMIO "ANDRES ESPINOSA" A LA MEJOR ACTIVIDAD ALPINA / "ANDRES ESPINOSA" SARIA JARDUERA ALPINISTIKO ONENARI

IÑAKI ARAKISTAIN ARRIETA, ALBERTO FERNÁNDEZ SANTIAGO Y JOSEBA LARRAÑAGA SUDUPE

PREMIO "ANGEL SOPEÑA" A LA MEJOR ACTIVIDAD DE ESCALADA DEPORTIVA / "ANGEL SOPEÑA" SARIA KIROL ESKALADAKO JARDUERA ONENARI

"LOS G4TOS"

PREMIO "ANDRES DE REGIL" A LA MEJOR ACTIVIDAD DE ESQUÍ DE MONTAÑA / "ANDRES DE REGIL" SARIA MENDIKO ESKIKO JARDUERA ONENARI

BANDRES + KAROLO MEMORIALA

PREMIO A LA TRAYECTORIA/HISTORIAL / IBILBIDEAREN SARIA

POL - POL M.E. ETA JUVENTUS S.D.

PREMIO "LOLI LOPEZ GOÑI" AL ALPINISMO FEMENINO / EMAKUME MENDIZALEEN "LOLI LOPEZ GOÑI" SARIA

YOLANDA MARTÍN SONDESA

PREMIO "ANTXON BANDRES" A LA MÁS INTERESANTE ACTIVIDAD O COLABORACION / "ANTXON BANDRES" SARIA KOLABORAZIO INTERESGARRIENARI

MIKEL ARRIZABALAGA AIZPURUA

PREMIO "AMIGOS DEL MONTAÑISMO VASCO" / "EUSKAL MENDIZALETASUNAREN ADISKIDEAK" SARIA

JAVIER PASCUAL OTALORA



Oihana Azkorbeitia



Eskaladako proiektua



Yolanda Martín Sonesa

XXXVI PREMIOS PYRENAICA / PYRENAICA SARIAK XXXVI. EDIZIOA

XXXV. MENDI ARTIKULEN LEHIAKETA / XXXV CONCURSO DE ARTÍCULOS DE MONTAÑA

1º. Aneto por la cresta Salenques-Tempestades
ISA CASADO GALLEGO

2º. Pamir. Mendietan zehar gurpilekin bidaiari
ENEKO REDONDO

3º. Explorando el distrito de los lagos (Reino Unido)
BEGOÑA FERNÁNDEZ DÍAZ
PAULO ETXEBERRIA RAMÍREZ

XXXVI. MENDI ARGAZKIEN LEHIAKETA / XXXVI CONCURSO DE FOTOGRAFÍA DE MONTAÑA

1º. Barrancos
TONTXU GONZÁLEZ ORTIZ DE MURUA

2º. Dolomitas al atardecer
CARLOS MEDIAVILLA

3º. Stromboli
JAVIER SÁNCHEZ

PYRENAICAKO EMAKUMEEN BLOGAREN IX. SARIA / IX CONCURSO DEL BLOG MUJERES DE PYRENAICA (ITZIAR LAZURTEGI MATEOS)

Bisita gehien izan dituen sarrera - Entrada con mayor número de visitas: EL RÍO LARRAUN Y PEÑA AIXITA - TRINI GRASES GESTÍ

Sarrera gehien izan dituen kolaboratzailea - Colaborador/a con mayor número de entradas: IZASKUN ESTIBARIZ ASTARLOA ETA JOSE INAZIO IZAGIRRE IZAGIRRE ("MENDIKOLORE")

PYRENAICAKO BLOGAREN III. SARIA / III CONCURSO DEL BLOG DE PYRENAICA

Bisita gehien izan dituen sarrera - Entrada con mayor número de visitas: ADI, ITURRUNBURU, BEODEGI, ASUNDEGIKO GAINA, LANOTEGI (DESDE SOROGAIN) - OSCAR ELORZA VILLANUEVA

Sarrera gehien izan dituen kolaboratzailea - Colaborador/a con mayor número de entradas: JOSEBA CALZADA "IGERTU"

26.000 IKUSLETIK GORA BILBAO MENDI FILM FESTIVALEN SOKADARA BATUTA

“The Dawn Wall”, “Free Solo” eta “Becoming Who I Was” izan ziren Mendi Film Festivalen 11. edizioko pelikula izarrak



1600 espectadores vibraron con la sesión inaugural de la 11ª edición BMFF en el Euskalduna

Hamar egunez 12.008 ikusle Mendi Film Festival-eko zine aretoetan, Bilbon. Mendia, muturreko kirolak, abentura eta natura gaiak jorratzen dituzten pelikulak bogan daude eta mendizaleek zein, orohar, zinezaleek, istorio harrigarri eta hunkigarrien bila jotzen dute Mendifilm-era, inspirazio bila.

2008ko abenduan sortu zen Mendi Film Festival; lehenenengo lau edizioak Gasteizen egin ziren, eta 2012az geroztik Bilbon ospatu da. 4.772 ikusle bildu ziren Bilboko lehen edizio hartan, eta ordutik goranzko joerak ez du etenik.

Bigarren hamarkadari sendo ekin dio, beraz, Mendi Film Festival-ek. Edizio borobila izan zen 11.a. Bertan proiektatu ziren 58 pelikulen ordezkari gisa pertsona entzutetsuak bildu ziren Bilbon, hala nola, Tommy Caldwell, David Lama, Leo Houlding, Nico Favresse, Sean Villanueva, Jean Ives Fredrikssen, Pou Anaiak, Alberto Iñurategi, Silvia Trigueros, Aymar Navarro, Kepa Acero, Julio Villar... Baita entzute handiko hainbat zuzendari eta ekoizle ere: Peter Mortimer, Philipp Manderla, Michael Brown, Ben Sturgulewski, Lara Izagirre, Mathieu Le Lay, Bernat Sampol, Red Bull Media House...

Lau euskal ekoizpenek hartu zuten parte Sail Ofizialean: *Bayandalai Lord of the Taiga*, *Pastoreak*, *Tor* eta *Marierrauskin*. Lehen biek saria lortu zuten, gainera. Lara Izagirreraren eskua eta Aner Etxebarria eta Pablo Vidalen pasioa du *Bayandalai Lord of the Taigak* -Mongoliako Taigan girotutako lana, luzemetraia bat izango denaren aurrekari-, eta Kultura eta Natura Film Onenaren aitortza jaso zuen. Eukeni Arriortuaren filmagintza eta Bideografik-en esperientziatik sortutako *Pastoreak*lanak -Puy Arrieta eta Jon Etxeberria artzainak protagonista-, Euskarazko Film Onena delako izendapena jaso zuen.

Jaialdiko Zabalandi atalean, bestalde, *Aralar Mundua Leku den Lurra* dokumentala ere aurkeztu zen. Euskal mendi zinemagintza geroz eta emankorragoa da, eta Mendi Film Festival da horren erakusleihoa.

Sail Ofizialean gehien nabarmendu ziren filmak eskaladari buruzkoak izan ziren. Mendi, *The Dawn Wall* eta *Free Solo* pelikulak aldi berean aurkeztu dituen jaialdi bakanetakoa da, ezbairik gabe 2018ko pelikula sonatuenak. Tommy Caldwell-en ibilbideari buruzko *The Dawn Wall*-ek, Epaimahaiaren Saria jaso zuen;



Juanjo San Sebastián, Premio WOP 2018


Euskalduna Jauregian Hasiera Ekitaldian inauguratu zen, eta Caldwell eta Peter Mortimer zuzendaria eszenatokira agertu zirenean Mendin sekula entzun den txalo zaparrada handiena eskaini zieten 1600 lagunek. *Free Solo*-k Alex Honnold du protagonista, sokarik gabe El Capitan horma eskalatu zuenekoan oinarrituta; Argazkilaritza Onenaren Saria eta Ikusleena jaso zituen.

Bestetik, 11. edizioko Sari Nagusia pelikula sozial bati eman zion epaimahaiak: *Becoming Who I Was*. Koreako ekoizpena, Ladakh-en girotutako rode movie-a, Rinpoche izendatu zuten mutiko gaztea eta haren zaintza eta laguntzaile lanak betetzen dituen irakasleak bizi duten istorio hunkigarria kontatzen du.

Filmeez haratago, 11. edizioko harribitxia *Everest, Herri oso bat gailurrean* komiki liburua izan zen. 74ko Tximist eta 80ko



'The Dawn Wall' presentado por su director Peter Mortimer y el gran Tommy Caldwell



Históricos del Everest en la presentación del comic 'Everest, todo un pueblo en la cumbre': Luis Mari 'Petxu' Sainz de Olazagoitia, Angel Lerma, Txomin Uriarte, Kike de Pablo, Felipe Uriarte y Luis Mari Abalde

Everesteko euskal espedizio historikoen kontakizuna, Cesar Llagunoren ilustrazioekin eta Ramon Olasagastiren gidoiarekin, Bilbao Mendi Film Festival-en sorkuntza, SUA argitaletxeak kaleratua. Egileez batera, protagonistak ere batu ziren haren aurkezpenara: Luis Mari 'Petxu' Sainz de Olazagoitia, Angel Lerma, Txomin Uriarte, Kike de Pablo, Felipe Uriarte eta Luis Mari Abalde.

Jim Herrington argazkilari sonatua ere Bilbon izan zen, *The Climbers* erretratu liburu zoragarriaren erakusketarekin: Kurt Diemberger, Reinhold Messner, Riccardo Cassin,... XX. mendeko alpinista legendarioak zuri-beltzeko argazkietan. Eta beste behin, CVCEPHOTO mendiko jardueren nazioarteko lehiaketako ale onen erakusketak haien egileak ekarri zituen Bilbora, Donostiako Club Vasco de Camping Elkartearen eskutik.

2018ko Mendin bi omenaldi berezi egin ziren: Juanjo San Sebastian mendizale eta idazle bilbotarrak WOP Saria jaso zuen, mendiko balioen transmisioan egin duen lanagatik, eta Kurt Diemberger austriarrak IAMF Saria, mendiko zinemagintzari egindako ekarpenagatik. Ongi merezitakoak biak hala biak.

Mendi zinemaldien nazioarteko elkargoak, International Alliance for Mountain Film, urteroko batzarra Bilbon egin zuen. Mundu osoko 27 mendi zinemaldik osatzen dute elkargoa, eta Bilbao Mendi Film Festival-en zuzendaria, Jabier Baraiazarra, da haren presidentea. Loratzeko sasoi bete-betean dago mendi zinemagintza, eta IAMF elkargoa gidari eta erakusle izango da industriaren nondik norakoak zehazteko.

2018 oparoa burutu zuen, beraz, Mendi Film Festival-ek, izan ere abenduko jaialdi nagusiari urte osoan Mendi Tour eskaintzak bildutako datuak gehitu behar zaizkie: 14.400 ikusle hartu zituen Mendi Film Festival-eko pelikularik onenak eskaintzen dituen mostra ibiltariak iaz, 50 agertoki desberdinetara iritsiz, Euskadin eta Nafarroan eta baita Errioxa, Kantabria, Asturias, Galizia, Gaztela eta Leon, Madril, Andaluzia, Valentzia, Katalunia, Aragoi eta Kanaria Handian ere. Orotara, beraz, 26.000tik gora Mendizale batu ziren 2018an Mendi Film Festival-en sokadara.

2019an, jada, Mendi Tour zirkuitua han eta hemen zabaldua dago, eta Bilboko hitzorduak ere baditu datak: abenduaren 6tik 15era egingo da Mendi Film Festival-en 12. edizioa.